# IZKI MONTAÑA ALAVESA

## IBILBIDEA 2 AGUAKE

### FITXA TEKNIKO

**ZAILTASUN MAILA:** OSO ERRAZA

**ABIAPUNTUA:** Antoñanako informazio-gunea, Antoñana (Araba)

**HELMUGA:** Antoñanako informazio-gunea, Antoñana (Araba)

**IBILBIDEA:** Antoñanako informazio-gunea, Antoñana, Aguakeko bidezidorra, Aguakeko ur-jauzia, Antoñana, Antoñanako informazio-gunea

### PROFIL




**DISTANTZIA:**
5,820 km

**METATUTAKO DESNIBEL POSITIBOA:**
93 m

**GUTXI GORABEHERAKO IRAUPENA:**
0:45

### DESKRIBAPENA

**Zailtasunik gabeko ibilbide labur hau Antoñanatik abiatu eta Sabandoko errekaren ibilguan barrena sartzen da. Arabako Mendialdeaz goza dezakegu bere distira osoarekin, batez ere udaberrian bertaratzen bagara. Oso ingurune pribilegiatua da basoaren eta ibaiaren artean. Naturaz gozatuz erlaxatzeko ingurune paregabea.**

Ibilbide laburra, erraza eta polita. Antoñanaren ondoan aurkituko dugun informazio-taulatik [km 0] abiatu eta errepidea gurutzatuko dugu arretaz. Herrirantz joko dugu, eta kale nagusitik bertaratuko gara. Lehenengo sarreran ezkerrerantz hartuko dugu eta igotzen hasiko gara.

Ia herri osoa zeharkatutakoan, atzetik Sabandorantz ateratzen den pista hartuko dugu. Aldapa gogor batean gora egingo dugu berrehun bat metroz, eta ibaiarekiko paraleloki, metro batzuk gorago, igarotzen den eskuinaldeko pistari jarraituko diogu.

Basoan barrena bide lauan egingo dugu geratzen den tartea. Halako batean pista estutu egingo da. Hor, une batez bizikleta utzi eta berrehun bat metro oinez eginez gero, ur-jauzi eder bat [km 2,91] ikusteko aukera izango dugu. Merezi du. Bide beretik itzuliko gara.



**HARRERA PUNTUA** Urturiko Golf Zelaia, Arriba auzoa, Urturi (Álava-Araba) **T.** 945 378 262 **E.** izki@euskadibttzentroak.com

BTT EUSKADI ZENTROAK / CENTROS

BTT EUSKADI ZENTROA

# IZKI MONTAÑA ALAVESA

MAPA




Testuak eta mapak: **Geotech S.L.**
Arabako Teknologi Parkea, Albert Einstein 44, Eraikina E6, 01510 Miñano (Álava-Araba)
**T.** 945 010 949 **E.** info@infogeotech.com

**www.btteuskadi.net**



**HARRERA PUNTUA** Urturiko Golf Zelaia, Arriba auzoa, Urturi (Álava-Araba) **T.** 945 378 262 **E.** izki@euskadibttzentroak.com